UDALGINTZA

# Zer gauzatu da?
## 2024 apirila - azaroa

• HONDARRIBIA eta AMAIUR senitartze programa burutu genuen apirilean, gure herriaren historia eta kultura jorra-gai izan genuelarik. Amaiera gisa, bi herrien senitartze hitzarmena sinatu genuen eta etorkizunean ere, ardatz honi jarraiki etorriko dira bi herrien harremanak sendotzeko ekitaldi gehiago!

• Maiatzan, HONDARRIBIA ITSAS HERRIA egitaraua sortu zen, Hondarribiak duen ondarea eta itsasoaren arteko ekintza-sorta jasotzen zuena. Asmoa, hurrengo urteetan hilabete horretan finkatzea izango da, jarraipen bat emanaz gure herriak itsasoarekin izan duen lotura estuari.

• Udaberritik, Hondarribia XXI. mendean sartu da, behintzat berdintasunari dagokionez. Izan ere, aurreko gobernuek ia 10 urtez entzungor egin ostean, gobernu aldaketarekin iritsi da Hondarribiko udalak BERDINTASUN TEKNIKARI plaza sortzea eta berdintasun politikak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak ezartzea, aurrekontu propio batekin.

• Agintaldi plana aurkeztu zenetik urte erdi pasatakoan, Biteri-Txiplau, Amute eta Satarkako HAUR PARKEAK ESTALI eta BERRITU egin dira, hainbeste erabiltzen diren eta hamarkadetako utzikeria zutenak, alegia.

• Herrian dugun eskaintza kultural zabal eta aberasgarriari, kalitatezko jauzi bat eman zaio aurtengo udaran, HONDARRIBIA KULTURA ekimena sortuaz. Alde Zaharreko espazio jakin batzuk berreskuratu ziren, harresien barneko hainbat espazio protagonista eginaz eta bizia emateko asmotan. Nahiz eta musika kontzertuek izan garrantzia gehiena, bazegoen hortik haratago joan nahi zuen jendearentzat programazio-kultural eskaintza zabala ere, beti ere kalitatezko eta formatu txikiaren aldeko apustua eginaz.

• Urteetako atzerapena izan ostean, behingoagatik martxan jarri da udan zehar SANTIAGO KALEKO BERHIRITARTZEA, 1-21 zenbakiko sotoen arteko zatia, alegia. Obrak bide honetik dihoaztela ikus genezake eta aurreikuspenen arabera, urte amaierako amaitua egon beharko luke.

• Irailean burutu genuen ez-ohiko udalbatzan, SAN NIKOLAS BALUARTEAN DAGOEN LURSAIL EROSKETA burutu genuen, Villa Mendian kokatzen dena, zehatzak izateko. Honekin, eremua udal ondarearen barnean kokatuko da eta harresien testuinguruan, hauek oraindik eta balio handiagoan jartzeko balioko du, behin erosketa eginda eta etorkizuneko esku-hartzeak burutzerakoan.

• AMUTE 29ko eraikina eraitsi eta espazioaren egokitzapen lanak burutu dira. Gogoratu behar dugu, eraikina, ordenazioz kanpo zegoela eta bertakb oinezko eta bizikletentzako eremuak hiritartu behar zirela.

WWW.ABOTSANITZ.EUS

# Abotsanitz whatsapp kanala




Batu zaitez Abotsanitzen Whatsapp Kanal berrira!

ESANA

“ OTArekin, mezu ezkutuak ikusi ditugu. Portuan, 4 ordukoa (gehienezko iraupena aparkatzeko). Hori ez dugu aipatu, ez batzordean, ez hemen eta ez inon. Baina Ordenantzetan aldaketa ematen da 10 ordutik 4 ordura. ”

**Gonzalo Carrion,** EAJ-PNVko bozeramalea
2024/10/24ko udalbatza

**El portavoz del PNV no se entera.**
Estando ellos en el gobierno, él incluido, aprobaron dicha medida en la ordenanza municipal de movilidad (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 23/06/2022). Y ahora, se lo echan en cara al nuevo equipo de gobierno, como si hubiese sido aprobado ahora.

HERRIGINTZA

# Auzoka bueltan da!

2025 urtea hastearekin bat abiatuko dugu Auzoka proiektua berriz ere. Jaio ginenetik, herrigintza izan dugu ardatz nagusi eta auzo ezberdinekin elkartzea ezinbestekoa da bertako beharrak, iradokizunak eta arazoak bertatik-bertara ezagutzeko. Hori dela eta, hurrengo hilabeteetan aurkeztuko dugu zein egutegi izango duen Auzokak, 2025eko lehen hiru hilabeteetan zehar. Bertan ikusiko gara elkar!

OSASUNA

# Osasun zerbitzuaren etorkizuna

Irailaren amaieran, estreinakoz izan genuen Alberto Martinez osasun sailburua geurean. Bi bilera burutu zituen ordezkari instituzional ezberdinekin eta aipatu beharrean gaude, jarrera aldaketa bat emana dela dagoeneko eta itxaropena pizten duen bidea hasteko dagoela.

Bidasoa eskualderako etorkizuneko Plan Integral bat sortzeak, Lehen Mailako Arreta zerbitzua, espezialitateak eta ospitale-zerbitzuetan hobekuntzak ekarri beharko ditu, ezinbestean. Herritarren beharrak mahai gainean jartzeko balio beza planak, hori baita herri egiteko modua eta horrek, gertukoa eta kalitatezkoa den zerbitzu bat eskaintzea ekartzea. Otsaileko udalbatzan erregistratu genuen eta onartu zen proposamenaren harira, plan horretan hainbat espezialitate Hondarribiko anbulategira ekartzea mahai gainean jarriko dugu.

Azkenik, osasun publikoaren defentsan, herri mugimenduak egindako esfortzua eskertu beharrean gaude, zehazki, Osasun Bidasoa plataformari. Gizartea antolatzen denean, gauzak lortzen direla ikusarazi dute eta horren emaitzak, ostean, herriaren mesederako izango baitira. Horretaz gain, eskualdeko ordezkari instituzionalek izandako jarrera ere mahai gainean jarri nahiko genuke, konpromezua adierazi eta buru-belarri jarduten egon baitira.

Albiste hauek eta gehiago jarraitzeko
**abotsanitz.eus**
Para leer éstas y más noticias

abotsanitz

Hondarribia | UDAL KRONIKA | 2024 azaroa
zk. 006 DOAN

EDITORIALA

# Hondarribia erakargarria eta jasangarria







**Mende luzeetan zehar, Hondarribiak izan duen nazioarteko sona, hiri gotortuari eta izandako kokapen geoestrategikoari zor izan zaio. Hiriko harresiek bizitutako gerrateen zantzuak ikusgai dira gaur egun oraindik.**

**Hondarribiak, baina, ez dio bere sona, iragan militar horri bakarrik zor. Ondo dakigu bertakoak nolako altxorra den gure paisaia eta nolako pasioak sortzen dituen gure mugetatik kanpora. XX. mendean zehar, fenomeno berri baten sorrera iritsi zen gure lurretara: “Beraneantea/Bañistena”. Turismoarena, alegia.**

**Fenomeno honek indarra hartu zuen eta hiriko antolakuntza sozio-ekonomikoaren eraldaketa eta batzuentzako aberastasuna ekarri zuen. Alde batetik, Lehenengo sektorearen kaltetan, hirugarren sektorea ardatz bihurtu eta zerbitzuak eskaintzeaz biziko zen herriaren sorrerari hasiera eman zitzaion; eta bestetik, etxebizitza parkean 2. errezidentzien kopuruak nabarmen egin zuen gora.**

**XX. mende hasieran inork ez zuen imajinatzen hiri-eredu honek belaunaldi ezberdinak hiritik kanporatuko zituela. Azken hamarkadetan gainera, egoerak okerrera egin du. Norbera jaio den herrian bizi nahi izatea luxua bihurtu dute EAJ-PNVren epe motzeko politika liberalek.**

**Gure herriaren edertasunaz herritarrok gozatzen badugu ere, Hondarribia etengabeko erakusleiho batean jartzeak ondorioak ditu eta bertako zein bisitarien arteko elkarbizitza arazoak sortarazten dizkigu. Horrek guztiak, auzo eta auzotarren bizi-kalitatean eragin zuzena dauka espazio publikoaren erabileran, mugikortasunean, irisgarritasun arazoak, gehiegizko zabor metaketa, prezioen salneurrian etab.**

**Hondarribiak etorkizun oparoak izan dezan, ezinbestekoa da kalitatezko zerbitzu eta iharduera ekonomikoak eskaintzea. Kalitatezko turismo eredu batean sinisten dugu, herritar eta bisitarien arteko elkarbizitza bermatu beharra daukagu eta horretarako araubideak ezartzea ezinbestekoa da. Orain arteko politikak eguneratuz, dinamizatuz eta herritarrak lehenetsiz. Gure herria urte osoan zehar erakargarria eta jasangarria izan dadin.**

HONDARRIBIA ATRACTIVA Y LLEVADERA.

La fama internacional que ha tenido históricamente Hondarribia se debe sobre todo a su situación geoestratégica como ciudad fortificada. Los vestigios en sus murallas castigadas por las guerras así lo atestiguan.

Pero su renombre no se debe solo a su pasado militar. La gente de aquí conocemos el tesoro de su paisaje y las pasiones que desata más allá de nuestras fronteras. A lo largo del siglo XX un fenómeno nuevo fue llegando a nuestras tierras: el de los “veraneantes” o “bañistas”. Es decir, el turismo.

Este fenómeno tomó fuerza y trajo aparejada la transformación socio-económica de la ciudad y, para algunos, la riqueza. Por un lado, en detrimento del sector primario, se fue consolidando una población dedicada a los servicios; por otro, aumentó notablemente el número de segundas residencias.

A principios del siglo XX nadie imaginó que este modelo de ciudad forzaría a varias generaciones a abandonar la ciudad. Además, la situación ha empeorado en las últimas décadas. Vivir en el pueblo natal se ha convertido en un lujo debido a las políticas neoliberales cortoplacistas de EAJ-PNV.

Aunque disfrutemos del encanto de nuestro pueblo, el colocar a Hondarribia en un escaparate permanente conlleva problemas de convivencia entre personas autóctonas y visitantes. Esto influye en la calidad de vida de los barrios, en el uso del espacio público, en la movilidad, en la accesibilidad, en el exceso de residuos, en el aumento de los precios, etc.

Para que Hondarribia tenga un futuro fecundo, es imprescindible la oferta de actividades económicas y servicios de calidad. Creemos en un modelo de turismo de calidad que proteja la convivencia entre personas autóctonas y visitantes, y para ello hay que poner normas, actualizar políticas, dinamizarlas, priorizando siempre a la ciudadanía. Para que, durante todo el año, nuestro pueblo sea atractivo y llevadero.

ALARDEA

# 2024ko jaiak - alardea (irakurketa)

Euskera

Castellano

MOZIOEN TXOKOA

# Udalbatzak

**Ekaineko udalbatzan** talde turistikoak mugatzeko proposamena erregistratu genuen, herritarren bizi-kalitate duina bermatu eta kanpotarrekin bizikidetza ahalik eta normalena izan dadin. Bozketara eraman eta gero, gehiengo osoz onartua izan zen eta azpimarratzekoa izan zen kontrako bozkarik ez zuela jaso oposizioaren aldetik.

**Iraileko udalbatzan,** Alkate, Zinegotzi eta Udal funtzionarioak 36ko Gerra eta Diktadura frankistak kanporatu zituenak haien karguan birjartzeko proposamena erregistratu genuen udala osatzen dugun lau alderdien izenean eta aho batez atera zen aurrera errekonozimendu-proposamena.

HEMEROTEKA

# Hondartza Kiroldegirako kudeaketa

2022an Hondartza Kiroldegirako kudeaketa publikoa aldarrikatzen genuen.
En 2022, reivindicamos la gestión pública del Polideportivo Hondartza.

Irakurri komunikatua hurrengo estekan /
Lee el comunicado en el siguiente link QR

Euskera

Castellano

# Aprobada la actualización de las ordenanzas fiscales

En el Pleno de octubre, tras doce años, se aprobó la actualización de las Ordenanzas Fiscales del Ayuntamiento de Hondarribia con los votos a favor del gobierno municipal y en contra los de la oposición. Para hacer una cronología del proceso tenemos que remontarnos medio año atrás.

En la comisión celebrada el día 18 de abril se abrió el período para las aportaciones de los partidos, dándose de plazo hasta el 30 de junio (dos meses y medio). En Abotsanitz nos parecía una oportunidad magnífica para, empezando desde cero, presentar cada cual sus propuestas de mejora. Pero, lamentablemente, fuimos los únicos que realizamos nuestros aportes en el plazo indicado.

El PSE-EE registró sus propuestas el mismo día de la convocatoria de la comisión, el 15 de octubre. EH Bildu había inscrito las suyas unas semanas antes. Y EAJ-PNV no presentó ninguna propuesta, reafirmando en la práctica su negativa a participar en la dinámica de trabajo de este ayuntamiento. Así llegamos al pleno de octubre donde se actualizaron y aprobaron unas tasas que no se habían tocado desde el 2012. Hay que subrayar, también en este caso, la dejadez del anterior gobierno jeltzale, el estancamiento de más de una década reflejado en los documentos guardados en disquetes, los precios todavía en pesetas, las tarifas de un parking (el de la Benta) hoy inexistente, etc.

Las ordenanzas salieron adelante con los votos del gobierno municipal y la oposición del PSE-EE y EAJ-PNV. Concretamente, el PSE les achacó un afán recaudatorio, y el PNV vaticinó que no se gastaría todo el dinero previsto en el presupuesto. Denunciamos la incoherencia del PNV porque precisamente en este pleno se han explicado los límites de la ejecución del presupuesto, y, hasta la fecha, se ha gastado medio millón más de lo recaudado. A la campaña de embustes respondemos con datos.

Con todo, el resultado ha sido la actualización de la ordenanza fiscal. De acuerdo al IPC (Índice de Precios de Consumo) los impuestos se han incrementado un 3.5%. Porque durante doce largos años, mientras las tasas e impuestos estaban congelados, los precios subían. Además, dado que el remanente de tesorería no se puede tocar porque así lo marca la ley, el incremento de las contribuciones posibilita la oferta de nuevos servicios y la realización de nuevos proyectos enfocados a la política social: la reurbanización del Poblado de Pescadores y de Pasaia kalea, el autobús urbano, la cumplimentación de la cartera de Servicios Sociales y el traslado de estos a Muliate, etc. Por otra parte, también hemos aprobado otras medidas de carácter social en relación con los inmuebles y la tracción mecánica. *Ver tabla*.*

IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES (IBI):

• A las familias numerosas, con tres hijos(as), bonificación del 50%; con cuatro, bonificación del 70%, y con cinco o más hijos(as), del 90%, siempre que los ingresos familiares no superen los 80.000 euros.

• Bonificación al aprovechamiento de energías renovables en la vivienda habitual (hasta ahora también se beneficiaban las segundas viviendas).

• Aumento del recargo al 75% a las segundas viviendas o viviendas no habituales, equiparándonos a los pueblos del entorno (75% en Oiartzun, 100% en Tolosa, Zarautz y Hernani, 150% en Donostia e Irun).

• Estas segundas viviendas, al recibir bonificaciones, quedaban eximidas del recargo, pero este punto se ha anulado.

IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS:

• Del parque de turismos de Hondarribia (9.123 en 2024), el 88,42% (8.067 vehículos) no padecerá subida alguna. Al 53.76% (4.905 vehículos) se les aplicará una rebaja, y el 11.58% (1.056 vehículos) sufrirá un aumento, o sea un mayor esfuerzo fiscal que los otros porque se trata de coches de lujo y gran potencia con mayor coste económico. Ver cuadro comparativo.

Aparte de esto, también son reseñables la reducción (del 50% y del 33%) de las tasas de cesión del cementerio, la ampliación de un año a dos de la aplicación del IBI y la imposición de tasas al uso privativo de las viviendas cuyo titular muera o a los edificios de propiedad municipal.

Hasta aquí los resultados de este proceso. Recordemos que nuestros objetivos son la justicia social en nuestro pueblo, el estímulo de una sociedad progresista que apoye a los sectores vulnerables, que priorice la calidad de vida de la ciudadanía hondarribiarra, a través de una política popular que funcione de abajo arriba.

En aras de esa justicia social hay que recortar la diferencia entre las rentas, de manera que fiscalmente las personas que ganan más realicen un mayor esfuerzo que las de ingresos menores. Hasta ahora ha sido al revés, es un terreno que tenemos que cultivar entre todas y todos, con las políticas sociales como instrumento, desterrando los modelos que posibilitan hondarribiarras de primera y de segunda clase.

En Hondarribia, noviembre de 2024
Abotsanitz.

En Abotsanitz llevamos tiempo denunciando el proceso de expulsión silencioso de sus habitantes por el alto precio de la vivienda, fomentando un modelo de ciudad que crea habitantes de primera y de segunda.

Reflejo de ello es que la presión fiscal se ha aplicado de manera desigual y quienes menos tienen han estado aportando más, en comparación con la aportación de los bolsillos más desahogados.

La Justicia Social es la base de nuestro proyecto. Por eso, el Ayuntamiento ha aprobado varias medidas para empezar a equilibrar la balanza.

| TURISMOA | HOND. 2024 (2013koa) | ZARAUTZ | IRUN | DONOSTIA | HERNANI | PROPOSAMENA 2025erako |
|---|---|---|---|---|---|---|
| -9 Z.F | 43.49 | 45.62 | 36.78 | 42.89 | 44.25 | 36,55€ (-%15) |
| 9 – 11.99 Z.F | 86.98 | 91.24 | 77.62 | 87.93 | 88.35 | 78,28€ (-%10) |
| 12 – 13.99 Z.F | 144.97 | 157.41 | 142.25 | 154.25 | 164.25 | 144,97€ (%0) |
| 14 – 15.99 Z.F | 202.96 | 225.72 | 217.17 | 222.97 | 235.4 | 223,25 (+%10) |
| 16 – 19.99 Z.F | 260.95 | 307.54 | 301.23 | 297.50 | 312.55 | 300,09€ (+%15) |
| +20 Z.F | 318.94 | 375.88 | 404.58 | 377.16 | 394.3 | 398,67 (+%25) |

Ver las propuestas concretas:



**FAMILIA**
Bonificación de las familias numerosas, en relación a la cantidad de hijos e hijas



**ENERGIA**
Bonificación por aprovechamiento de energías renovables, solo en las viviendas habituales.



**CEMENTERIO**
Reducción en las tasas de cesión del espacio del Cementerio (50% y 33%, respectivamente)



**EDIFICIOS MUNICIPALES**
100% de bonificación para las asociaciones sin ánimo de lucro de Hondarribia, para el uso de los edificios municipales.



**VIVIENDA**
Subida del recargo hasta el 75% a las residencias no habituales o vacías, equiparando con las ciudades de alrededor.



**VEHÍCULOS**
Redistribución del impuesto de Tracción mecánica.
> GAMA BAJA: Bajada al 53% de los vehículosa
> GAMA MEDIA: El 35% de los vehículos pagará lo mismo
> GAMA ALTA: Subida al 11% de los vehículos



# Ordenantza fiskalen eguneratzea onartua

Urriko udalbatzan, hamabi urteren ondoren, Hondarribiko Udaleko Ordenantza Fiskalak eguneratzea onartu zen, udal gobernuaren aldeko eta oposizioaren aurkako bozekin. Prozesua eta kronologia egiteko, urte erdi atzera joan beharra daukagu, apirila erdialdera arte, alegia.

Hilaren 18an burutu zen batzordean, azaldu zen Ordenantza Fiskalak eguneratzeko aukera irekitzen zela, alderdi guztiei ekarpenak egiteko, ekainak 30a arte (bi hilabete t´erdi). Denok, hutsetik lan egin eta bakoitzarenak zirenak proposatu eta ekarpen horiek ordenantza hobetzeko aukera ezin hobea zela irudi genuen Abotsanitzetik. Baina, tamalez, bakarrak izan ginen lan eta ekarpenak garaiz egiten.

Urriaren 15ean, batzorderako deialdia zabaldu zen egunean bertan, PSE-EEk beren proposamenak erregistratu zituen,EH Bilduk, aste batzuk lehenago egin zituen hainbat ekarpen eta nabarmentzekoa, gai honetan ere, EAJ-PNVk ez zuela proposamenik aurkeztu, udal honen lan-dinamikan parte-hartzeari uko egin diotelaren seinale. Honela, urriko udalbatzan, 2012tik ukitu gabe egon diren tasak onartu eta eguneratu egingo ziren, eta azpimarratu behar dugu, honetan ere, aurreko udal gobernu jeltzaleek izandako utzikeria; hamarkada bat baino gehiagoko izoztea, disketeetan gordetako dokumentuak, hainbat tarifa pezetetan oraindik, Benta zaharrean kokatzen zen eta gaur egun ez dagoen parkingaren tarifak, etab.

Aurrera atera genuen udal gobernuaren aldeko bozkekin eta PSE-EE eta EAJ-PNVren aurkako bozekin. Zehazki, sozialistek erabilitako aitzakia, diru-bilketa helburu duen neurria zela argudiatu zuten eta PNVk, aurrekontuan sartu den diru guztia ez dela gastatuko aurreikusten dutenez, kontra agertu ziren. Jeltzaleen zentzugabetasuna salatu beharrean gaude, justuki, udalbatza horretan, aurrekontuaren exekuzioaren nondik-norakoak eman baitzen eta momentuz, milioi erdi gehiago gastatu da jaso dena baino. Beraz, gezurraren kanpainari, datuekin erantzun behar diegu.

Guztia esanda, ordenantza fiskalaren eguneratzea eduki dugu emaitza gisa. KPIaren (Kontsumorako Prezioen Indizea) araberako zergen %3,5eko igoera eman zen. 12 urte luzeetan, zergak eta tasa publikoak izoztuak egon dira, prezioen igoera bat eman denean. Baina zergaren handitzeek, zerbitzu berriak eskaini eta proiektu berriek egiteko inbertsioak dakarte (Arrantzale auzoa edo Pasaia kaleko berhiritartzea, hiri barneko autobus zerbitzua, Gizarte Zerbitzuen kartera betetzea eta hauek Muliatera lekualdatzea, etab.), altxortegiaren soberakina ezin baita ukitu, lege funtsaren arabera. Hau da, politika sozialetara bideratzera. Horretaz aparte, kutsu sozialagoa duten beste neurri batzuk ere onartu ditugu, higiezinen gaineko eta trakzio mekanikoko zergetan, esaterako:

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA:

• Familia ugariei, 3 seme-alabekin %50eko hobaria, 4ekin %70ekoa eta 5 edo gehiagorekin %90ekoa, baldin eta familiaren osagai positiboak ez duten 80.000€ kopurua gainditzen

• Energia berriztagarrien aprobetxamendurako hobaria, bakarrik ohiko etxebizitzetan ezartzea (bigarren etxebizitzek ere aukera zuten orain arte)

• Bigarren etxebizitza / ez ohiko etxebizitzen errekargua %75era handitzea, inguruko herriekin ekiparatuz (Oiartzunen %75, Tolosa, Zarautz eta Hernanin %100ekoa eta Donostia eta Irunen %150ekoa)

• Etxebizitza hauetan, hobaria jasotzeagatik errekarguaz salbuetsita zeuden, baina puntu hori ezeztatu egin da.

IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

• Hondarribiko turismo parkearen (9.123 2024ean) %88,42ari (8.067) ez zaio igoerarik planteatuko. 4.905 ibilgailuei (%53,76) beherapen bat aplikatuko zaie, eta parkearen %11,58ri igoera bat pairatuko dute, esfortzu fiskal handiagoa alegia, teorian, turismo horien kostu ekonomikoa (luxuzko edota potentzia handiko autoak) besteekiko baino nabarmen handiagoa den heinean. *Hurrenez hurren taulan*.*

Hortaz aparte, azpimarratzekoak dira ere hilerriko lagapen tasetan eman den murrizketa (%50 eta %33koak), Ondasun Higiezinen Zergaren aplikazioa urte batetik bira luzatzea, etxebizitzaren titularra hil ezkero edota udalaren jabego diren eraikinen erabilera pribatiboaren tasak ezartzea.

Prozesua eta huraxek izandako emaitza mahaigaineratuaz, amaitzeko, gure helburuak zeintzuk izan diren aipatu beharrean gaude. Gure herrian justizia sozial, gizarte aurrerakoi eta zaurgarrienei laguntzeko eta Hondarribiarren bizi kalitatea lehenetsi eta behetik gorako herri politikagintza bat dugu oinarri.

Abotsanitzetik, beti izan dugu oinarri justizia soziala eta errenten arteko diferentziak lausotu egin behar direla, eta honexegatik, uste osoan gaude, errenta handien jabe direnek, fiskalki, esfortzu handiagoa egin beharko dutela, errenta baxukoekin alderatuta, orain arte kontrakoa izan denean. Sinistuta gaude hau dela jorratu beharreko bidea, denok elkarrekin egitekoa, politika sozialak ardatz izango dituena eta lehenengo eta bigarren mailako hondarribiarrik sortuko ez dituen eredua edukiaz.

Hondarribian, 2024ko azaroa
Abotsanitz.

Abotsanitzetik denbora luzez gabiltza salatzen, etxebizitza prezioak eraginda, Hondarribitik ihes egitera behartuta daudela herritar ugari, orain arte eduki dugun hiri-ererduak lehen eta bigarren mailako herritarrak sortzen baitzituen.

Horren adibide, presio fiskala izan genezake. Modu desproportzionatuan aplikatu da gaurdaino, errenta baxukoen jabe zirenen esfortzu fiskala handiagoa izan baita errenta handikoekin alderatzen baditugu.

Justizia soziala da gure proiektuaren oinarri. Horrexegatik, Hondarribiko Udalak hainbat neurri onartu ditu balantza parekatzen lagunduko duena.


| TURISMOA | HOND. 2024 (2013koa) | ZARAUTZ | IRUN | DONOSTIA | HERNANI | PROPOSAMENA 2025erako |
|---|---|---|---|---|---|---|
| -9 Z.F | 43.49 | 45.62 | 36.78 | 42.89 | 44.25 | 36,55€ (-%15) |
| 9 – 11.99 Z.F | 86.98 | 91.24 | 77.62 | 87.93 | 88.35 | 78,28€ (-%10) |
| 12 – 13.99 Z.F | 144.97 | 157.41 | 142.25 | 154.25 | 164.25 | 144,97€ (%0) |
| 14 – 15.99 Z.F | 202.96 | 225.72 | 217.17 | 222.97 | 235.4 | 223,25 (+%10) |
| 16 – 19.99 Z.F | 260.95 | 307.54 | 301.23 | 297.50 | 312.55 | 300,09€ (+%15) |
| +20 Z.F | 318.94 | 375.88 | 404.58 | 377.16 | 394.3 | 398,67 (+%25) |


Ikusi jarraian planteatu ditugun proposamen zehatzak:



**FAMILIA**
Familia ugariei, seme-aleben araberako hobaria.



**ENERGIA**
Energia berriztagarrien aprobetxamendu hobaria, bakarrik ohiko etxebizitzetan.



**HILERRIA**
Hilerriko lagapen tasetan murrizketak (%50 eta %33koak)



**UDAL ERAIKINAK**
Herriko irabazi asmorik gabeko erakundeek udal eraikinen erabilerarako %100ko hobaria



**ETXEBIZITZA**
Bigarren edo ez ohiko etxebizitzei %75era errekargu igoera, inguruko herriekin ekiparatzeko.



**IBILGAILUAK**
Trakzio mekanikoko zergaren (viñeta) mailakatzea
> GAMA BAXUA: Hondarribiko ibilgailuen %53ari jeitsiera
> GAMA ERTAINA: Ibilgailuen %35ak berdin ordainduko du
> GAMA ALTUA: Ibilgailuen %11ri igoera